

BILBON OSASUN-BILTZARRA EUSKARAZ *Menpekotasunen aurrean... geure buruen jabe*

Osasungoa Euskalduntzeko Erakundeak (OEE) aurtan Bilbon antolatuko du urtero egiten duen biltzarrara, euskara hutsean eta osorik egiten den bakarra. Menpekotasunak (drogak, teknologiak, gaixotasun psikologikoak, menpekotasun soziosanitarioak...) hartu dituzte gaitzat, eta betiko modura, espezialista ondo landu eta zailduak sakon eta zabal aztertuko dute.



*Izena emateko epea irekita dago; webgune honen bidez egin behar da:
www.oee.gunea.org*

Parte hartzeak balioa du Osakidetzako curriculumerako




Ba ote dator hizkuntza-eskakizunak egiaztatzeko deialdi berezia?

Gogoratuko duzu aurreko alean esan genuela Osakidetzak azterketa berezia egin nahi zuela euskaraz ondo hitz egin arren azterketa ezin gaindituta dabilzanentzat. Deialdia atzeratu egin da, baina asmoa ez da bertan behera uztea. Noiz egingo da? Ez dakigu, agian aurtan.

"Topo Euskal Herria" jaio da

Mugibili webguneak Euskal Herriko maparik osatuena eskaintzen du (<http://mugibili.euskadi.eus>), zehaztasun handiz, abarastutako edukiekin, eta lbilbideak sortzeko eta jarraipena errazteko kolore egokiak erabiliz. Gainera, bidegorriak eta bide berdeak bezalako eduki bereziak eskaintzen ditu. Webgunean hainbat formatutan doako behera kargatze librea eskaintzen da, GPS gailuetarako eta sakelako telefonoetarako .





BILBOBARRI


BILBO-BASURTU ESIKO EUSKALDUNON ALDIZKARIA



EUSKERAREN BARRI EMOTEN DAUAN ALDIZKARIA

3.ALEA, 2016KO MARTXOA

Euskaldun fededun? Bai zera! Euskal herritarrek espainiar estatuko fedegabeenak (CIS oinarri)



Garai batean oso ideia zabaldua zen kristau fedea zela euskaldunen ezaugarririk behinena: euskaldun ona kristau zintzo. Ez dakigu betebehar horrek oraindik ote badirauen, baina CISen ikerketa batek dio EAEko herritarrok garaia fedegabeenak. Noski, datua herritar guztiei dagokie (euskotarrei), ez bereziki euskaldunei.

Nolanahi ere den, ez dakigu aspaldiko euskaldunak hain kristau zintzo zirenentz, edo agian, bizitzako bekatuez gozatzeari oso bateragarri zeritzoten kristau zintzo izatearekin. Hori erakusten bide dute herrietako hainbat narraziok, abadeek (RM Azkuek, JM Barandiaranek...) bildu nahi izan ez dutenek, bai eta aspaldiko arteak ere. Ikusi bestela Abrisketako San Pedroren baselizan (Arrigorriaga) nolako erliebea jarri zuten: bai, ondo dakusazu, bikote bat larrutan, kokoriko, Kamasutrak dioen bezala. Eskola ona ote zuten?



Hiztegi fraseologikoa Labayruren eskutik

Labayru Hiztegi Fraseologikoa ipini du Labayru fundazioak bere webgunean. Gaztelaniaz gehien erabiltzen diren 3.500 lokuzio aukeratu, eta euskarazko ordaina bilatu diete.

App berri bi euskara ikasteko

Gesmae informatikak Esamoldeapp aplikazioa sortu du euskal esamoldeak lantzeko. Eta Ekintech enpresak argazkiapp sortu du hiztegia irudi bidez ikasteko. APP berorrek arrakasta handia izan du erdarazko bertsioan.

